

## 15. ORDENANTZA FISKALA

### **EUSKARA IRAKASTEKO ZERBITZUAK, ETXEZ ETXEKO ETA HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO LAGUNTZA ETA KULTURA- ETA KIROL-ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

#### **I.- XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua.-** Udal honek, Ordenantza honen Eranskinean zehaztutako jarduerak egin eta zerbitzuak emateagatiko tasak ezarri eta eskatu ditu, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan xedatutakoaren, eta Ordenantzan bertan ezarritakoaren arabera.

**2. artikulua.-** Ordenantza hau udal-mugarte osoan aplikatuko da.

#### **II.- ZERGAPEKO EGITATEA**

**3. artikulua.-** Udalak edo haren erakunde autonomoek, Ordenantza honen eranskinean zehaztutako zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea dira zergapeko egitatea.

#### **III.- SUBJEKTU PASIBOA**

**4. artikulua.-** Subjektu pasiboak, hau da zergadunak, honako hauek izango dira: zerbitzuak edo jarduerak eskatu, edo horien onuradun diren, zein horiek eragiten dien pertsona fisiko eta juridikoak; eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34. artikuluan aipatutako erakundeak.

**5. artikulua.-** Tasak ordaintzera behartuta daude:

- a) Partikularrek hala eskatuta emandako zerbitzu edo jardueren kasuan, horiek eskatu dituztenak.
- b) Partikularrek eskatu gabe, baina haiek egin dutenagatik edo egin ez dutenagatik eraginda emandako zerbitzu edo jardueren kasuan, egindako edo ez egindako hori egotz dakioken pertsonak.

#### **IV.- SALBUESPENAK, MURRIZTAPENAK ETA HOBARIAK**

**6. artikulua.-** Foru arauetan ezartzen denaren menpe egongo da salbuespenak edo bestelako zerga-onurak emateko aukera.

#### **V.- ZERGA-OINARRIA**

**7. artikulua.-** Jarduera edo zerbitzua gauzatzeko erabilitako unitate bakoitzak eratuko du tasaren zerga-oinarria, Eranskinean adierazitako baldintzen arabera.

#### **VI.- KUOTA**

**8. artikulua.-** Eranskinean ezarritakoarekin bat etorriz, tarifa bat edo horretarako ezarritako kopuru finko bat aplikatuzetik eratorritako zenbatekoa izango da zerga-kuota, edota bi prozedurak elkarrekin aplikatuzetik eratorritako kopurua.

#### **VII.- SORTZAPENA ETA ZERGALDIA**

**9. artikulua.-** Zerbitzua edo jarduera egitean sortuko da tasa. Ondorio horietarako, zerbitzua edo jarduera dagokion eskaera aurkezten denean hasiko dela ulertzen da.

### **VIII.- LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA**

**10. artikulua.-** Udalak, kontzeptu bakoitzari dagokion likidazioa egingo du. Gero, dagokion kopurua ordainduko da, zerga-bilketari buruzko indarreko araudian xedatutakoari jarraiki, eta Eranskinean jasota dauden arau berezietan izan ezik. Nolanahi ere, Udalak tasa horiek autolikidazio-erregimenean eskatu ahalko ditu.

### **IX.- TASEN KUDEAKETA**

**11. artikulua.-** Ordenantza honetan araututako tasak likidatzeari, biltzeari eta ikuskatzeari dagokionez, nahiz zergen arloko arau-hausteen kalifikazioari eta haien zioz ezarri beharreko zehapenei dagokienez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa beteko da.

### **X.- XEDAPEN IRAGANKORRA**

Urriaren 8ko 9/1998 Foru Arauak —Toki Ogasunei buruzko ekainaren 30eko 5/1989 Foru Araua aldatzekoak— Xedapen Iragankor Bakarreko 3. atalean ezarritakoaren arabera, Ordenantza honetan araututako tasak ez daude Zergei buruzko Foru Arau Orokorrearen 100. artikulua aipatzen duen banakako jakinarazpenaren betekizunaren menpe, baldin eta aldizkakoak badira, eta subjektu pasiboa eta tasaren kuota bat etortzen badira ordaindu behar duenarekin eta 1999ko abenduaren 31n indarrean egon den udal-eskumeneko zerbitzuak emateagatiko edo jarduerak egiteagatiko prezio publikoarekin.

Ondorio horietarako, jarraian adierazitakoa da aldizkako kobrantzako tasen zenbatekoa, ordainagiriko: aurretik indarrean egon diren prezio publikoak, gehi Basauriko Udalak horretarako oro har onetsitako eguneratzearen zenbatekoa.

### **XI.- AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta 2008ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, aldaketa eta guzti. Indarrean egongo da berau aldatu, edo indargabetzea erabaki arte.

*(Udalbatzak 2008ko irailaren 25eko, 2009ko irailaren 24ko, 2011ko azaroaren 11ko, 2012ko azaroaren 19ko, 2013ko azaroaren 19ko, 2014ko urriaren 30eko eta 2015eko urriaren 29eko bilkuretan hartutako erabakiek aldatua)*

**EUSKARA IRAKASTEKO ZERBITZUAK, ETXEZ ETXEKO ETA HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO LAGUNTZA ETA KULTURA- ETA KIROL-ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.**

**ERANSKINA: TARIFAK**

**I.- BASAURIKO UDAL EUSKALTEGIA**

IKASTAROETARA JOATEAGATIKO KUOTA	
IKASLE ETA ORDU BAKOITZEKO	0,64 €
LANGABEZIAN DAGOEN EDO DBE-REN ONURADUNA DEN IKASLE ETA ORDU BAKOITZEKO	0,46 €

**II.- ETXE MAITIA, HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZERBITZUEN UDAL-ZENTROA**

1.- BEREN KABUZ MOLDATZEN DIREN PERTSONEN EGONALDI IRAUNKORRAK	
2008/12/31 BAINO LEHEN SARTU BADIRA, PERTSONAKO ETA HILEKO	1.353,71 €
2008/12/31 ETA GERO SARTU BADIRA, PERTSONAKO ETA HILEKO	1.800,00 €
2. ALDI BATERAKO EGONALDIAK	
PERTSONA ETA EGUN BAKOITZEKO	70,95 €
3.- LAGUNDUTAKO PERTSONEN EGONALDI IRAUNKORRAK	
Bizkaiko Foru Aldundiak gerora lagundutako gisa aitortutako erabiltzaileek, mendeko adinekoentzako egoitzen zerbitzu publikoa arautzen duen foru araudiak ezarritako prezio publikoa ordainduko dute (abenduaren 16ko 11/2005 Foru Araua; eta abenduaren 20ko 209/2005 Foru Dekretua) .	

**III.- KULTUR ETXEAK**

A.- ARTE PLASTIKOETAKO IKASTAROETARA JOATEA	
IKASLE, ETA HILABETE EDO ZATIKI BAKOITZEKO	29,0 0 €
IKASLE-TXARTELA IZAN, EDO LANGABEZIAN DAGOEN IKASLE, ETA HILABETE EDO ZATIKI BAKOITZEKO	15,00 €
IKASTARO BATERA BAINO GEHIAGORA JOATEAGATIKO HOBARIA	% 15
BASAURIN ERROLDATUTA EGOTEAGATIKO HOBARIA	% 10
B.- TAILERRETARA ETA LUDOTEKARA JOATEA	
ERLAXAZIO-IKASTAROA	10,00 €
TAI JIA	13,00 €
PLASTIKA I (ordu bat eta erdiko saioa)	8,50 €
PLASTIKA II (ordubeteko saioa)	7,00 €
BITXIGINTZA IKASTAROA	31,90 €
ALTZARIAK ZAHARBERRITZEKO IKASTAROA	30,00 €
LUDOTEKA	10,00 €
IKASLE-TXARTELA IZAN, EDO LANGABEZIAN DAUDEN IKASLEENTZAKO HOBARIA	% 50
IKASTARO BATERA BAINO GEHIAGORA JOATEAGATIKO HOBARIA	% 25
C.- IKASTAROAK EDO JARDUERAK	
GUTXIENEKO PREZIOA	7,00 €
GEHIENEZKO PREZIOA	163,00 €
D.- «BEDERATZIETAN» PROGRAMAREN JARDUERETARA JOATEA	
SARRERA, PERTSONAKO	4,00 €
SOCIAL ANTZOKIA	
A.- SARRERAK	
ZINE-KLUBA	4,00

HAURRENTZAKO ZINEMA	4,00
ZINEMA	5,00
DBE JASOTZEN DUTEN FAMILIETAKO KIDEENTZAKO ZINEMA	3,00
IKUSKIZUNETARAKO SARRERA	ARTISTAREN SOLDATARE N ARABERA
<b>B.- URTEKO BONUAK</b>	
SOCIAL ANTZOKIKO LAGUNAK	44,00 €
SOCIAL ANTZOKIKO LAGUN GAZTEAK	24,00 €
BAZKIDE KOLABORATZAILEAK	225,00 €
BAZKIDE BABESLEAK	900,20 €
<b>C.- DESKONTUAK</b>	
Social Antzokiko Lagunen Elkartea	% 35
10 pertsonatik gorako talde egiaztatuak	% 30
Gazte Txartela edo hitzarmenak sinatzen dituzten beste gazte-txartel batzuk dituzten ikasle egiaztatuak	% 30
50 pertsonatik gorako talde egiaztatuak	% 50
DBE jasotzen duten familietako kideak	% 20
Basauriko saltokietako bazkide-txartela, «BASAURI TXARTELA», daukatenak	% 10
<b>D.- ALOKAIRUA</b>	
Egun erdiko alokairua	1.222,30 €
Egun osoko alokairua	2.444,50 €
Errejidore	224,00€
Txartelak imprimaketa (txartel – saltzaile)	20,00€
<b>E.- BEHAR TEKNIKOAK</b>	
«Agertoki osoko» argiztapen-diseinua	200,00 €
Aurrealdeko proiektagailua + pantaila	30,00 €
Ordenagailua	15,00 €
Ziklorama + 15 panorama, baran eta/edo lurrean	45,00 €
Jarraitzeko kanoia	20,00 €
Foku gehigarri puntuala	5,00€
Lurreko argi beltza	10,00€
Keako makina	30,00€

## ESPAZIOAK LAGATZEKO ZERBITZUA. ERRESERBA ETA ALOKAIRUA

### 1.- Espazioak lagatzea.

Basauriko kultur etxeetako, gizarte-etxeetako eta kultura-instalazioetako espazioak lagatzeko zerbitzua zera da: espazio bat eta material teknikoa lagatzea edo alokatzea; udalerriko erakundeek, elkarteek edo kultura-taldeek lehentasuna izango dute, baina partikularrei, enpresei eta elkarte profesionaleri ere lagatu edo alokatu ahal izango zaizkie, beren jarduerak egin ahal izateko. Edonola ere, talde soziokulturalek lehentasun osoa izango dute.

Basauriko kultur etxeetan, gizarte-etxeetan eta kultura-instalazioetan egiten diren jarduerak legea bete beharko dute, batez ere Konstituzioak, pertsonen eta herritarren eskubideen inguruan ezarritakoari dagokionez. Hortaz, ezin izango da aurrera eraman indarkeriaren, terrorismoaren eta intolerantziaren apologia bultzatzen duen ekitaldirik; ez eta, edukiagatik, edota sarbide eskubidean, genero, arraza, kultura zein erlijioagatik bazterkeria eragiten duen ekitaldirik ere.

### 2.- Erreserbatu daitezkeen espazioak.

Udal ordenantza fiskaletan ezartzen denaren arabera erreserbatu eta alokatu ahal izango dira kultur etxeetako, gizarte-etxeetako eta kultura-instalazioetako espazioak.

Ordenantza horietan zehaztuko dira erreserbatu eta alokatu daitezkeen espazioak, eta horiek libre daudenean eta eskarian adierazitako jarduera zehatza egiteko baldintzak betetzen dituztenean erabili ahal izango dira.

Hala ere, irabazi asmorik gabeko elkarteek edo erakundeek antolatutako kultura-jarduerak izango dute lehentasuna. Kulturaltzat bakarrik jotzen ez diren beste mota bateko jarduerak gauzatzen dituzten erakundeak, «partikular edo enpresatzat» jotzeko eskubidea du Udal Kultur Etxeak. Horrez gain, halakotzat jotzen direnez, tarifak kobratuko zaizkie.

Espazioen erabileran lehentasun osoa izango dute, hurrenkera honekin, Udal Kultur Etxeak, Udalak eta haren arloek, zein erakundeek egindako beste eskaerek. Hortaz, instalazioak erabiltzeko aukera emango zaie, Udal Kultur Etxeak antolatutako edo baimendutako ekitaldien arabera; ez da erreklamazioak aurkezteko aukerarik izango, baldin eta halakoen ondorioz baimendutako lagapena bertan behera utzi, edo ordutegia aldatu beharra badago. Hala ere, ahal dela, 48 ordu lehenago emango da horren berri.

### 3.- Erreserbatzeko prozedura eta eskarien tratamendua.

Espazio baten erabilera kasuan kasuko gizarte-etxean eta/edo kultur etxean eskatu beharko da, eskaera-orria aurkeztuta; bertan, eskatu nahi den espazioa, ordutegia, behar teknikoak eta garatuko den jardueraren laburpena zehaztu beharko dira.

Eskaera-orria, berriz, jarduera egin baino 15 egun lehenago bideratu beharko da, gutxienez, zentroetan bertan aurkeztuta, edo postaz, zein posta elektronikoz bidalita. Ez da onartuko jarduera egingo den eguna baino hiru hilabete lehenagoko eskaerarik. Gizarte-etxeak edo kultur etxeak, onartutako zein ukatutako erreserbak idatziz baieztatuko dizkiete eskatzaileei, eskaera jasotzen dutenetik 2 eta 5 egun bitarteko epean. Erantzun horretan, gainera, eskatutako zerbitzu guztien truke ordaindu beharreko zenbatekoa agertuko da. Behin betiko erreserba ez da egingo, eskatzaileak ezarritako tarifak ordaindu arte; ordainketa 10 egunetan egin beharko da, erreserbaren onarpena egiaztatzen denetik zenbatzen hasita.

Debekatuta dago eskaera-orrian agertzen den erakundea ez den beste batek okupatzea espazioa; halaber, debekatuta dago erreserba-protokoloan (eskaera-fitxa) deskribatzen dena ez beste jarduera bat egitea.

Basauriko Kultur Etxeak eskubidea du erakundeari, taldeari edo enpresari buruz, zein espazioa eskatzeak xede duen jarduerari buruz, informazio zehaztua eskatzeko. Erantzun ezean, zentroak jarduera bertan behera uztea eragin dezake.

Egingo diren jarduerak kultura-arlokoak izan beharko dira nabariki; baldintza hori bete ezean, elkartearen eskaerak partikularizat edo komertzializat joko dira eta, beraz, kasuan kasuko tarifak ordaindu beharko dituzte.

Erakunde berari espazio bat lagatzeak, aldizka izan arren, ez du inolaz ere aukera emango erakundearen edo taldearen egoitza zentroan ezartzeko. Era berean, zentroko espazioaren erreserba hiru hilabeterik behin berritu beharko da.

### 4.- Espazioen erreserbak eta alokairuak eskatzeko baldintzak.

Espazioak erreserbatzeko eta alokatzeko eskaera, jarduera bat aurrera eraman nahi duen edozein pertsona edo erabiltzaile-taldek egin ahal izango du, araudi honen hitzaurrean ezarritakoarekin bat etorruta.

Erreserba baimendu ondoren, eskaerako datuetan eman daitezkeen aldaketa guztien berri eman beharko zaio Udal Kultur Etxeari.

Espazioen erreserba egiten denean, eta erreserbak irauten duen denboran zehar, talde, elkarte, klub edo erakunde eskatzailearen arduradun bat egon beharko da bertan.

Egingo den jarduerarekin edo erreserbatzen den espazio-motarekin bat etorrira, espazioak erreserbatzeko eskaerak adingabeek egiten dituztenean, Udal Kultur Etxeak haien legezko tutoreen baimena eskatu ahal izango du. Halaber, erabaki ahal izango da taldeko arduradun den heldu bat bertan egotea.

Erakunde eskatzaileak, bere gain hartuko du ekitaldiaren erantzukizuna, eta jarduerak instalazioei, objektuei eta/edo altzariei eragin diezazkieketen kalteen erantzukizuna ere bai.

Erakunde eskatzaileak espaziorako baimendutako edukiera errespetatzeko konpromisoa hartuko du.

Udal Kultur Etxeak baldintza partikularrak ezarri ahal izango dizkie espazioen erreserba jakin batzuei, araudi honetan ezarritakoa bete dezaten, baita organo eskudunen bidez hemen jasota ez dauden baldintzetan espazio jakinak erabiltzeko aparteko baimena eman ere.

#### 5.- Tarifak.

Gizarte-etxeetan eta kultur etxeetan erabilgarri dauden espazioak erabiltzeak, udal-prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskalean onetsi eta jasoko diren tarifak ordaintzea dakar berekin.

Zerbitzuaren tarifen zenbatekoa, erreserba baieztatu osteko 10 egunetan ordainduko da, eta, edonola ere, jarduera egin baino hiru egun lehenago, gutxienez. Eskatutako denbora gaintuz gero, orduen zatikiak ordu osotzat joko dira, eta fidantzatik kenduko dira.

Baldintza hori bete ezean, erreserba ez da egintzat joko. Ordainketa egin ahal izango da dirua bankuan sartuta, edota zentrorra bertara eskudirua eramanda.

Gizarte-etxeetako eta kultur etxeetako espazioak erabiltzeak, kasu batzuetan, fidantza bat ordaintzea dakar, espazioa egokiro eta ondo erabiliko dela bermatzeko. Gordailu hori itzuli egingo da jarduera amaitzen denean, jarduera amaitu eta gutxienez 10 egun igarotakoan.

Gelari, altzariei edo materialei kalte edo hondamenen bat eraginez gero, horiek konpontzeak eragindako gastuak, berme moduan utzitako fidantzatik kenduko dira.

Jarduera ohiko ordutegitik kanpo garatzen bada, edo ordutegia luzatu behar bada, eskatzaileek langile-gastuak eta ordutegia luzatzearen ondoriozko gastuak ordaindu beharko dituzte, jardueraren ondorengo egunetan. Halaber, ekitaldietako soinu- eta argiztapen-teknikarien edo azpiegituren alokairuaren gastuak, euren gain hartu beharko dituzte.

Jarduera egiteko giza baliabideei edo baliabide teknikoei dagokienez, behar bereziak izanez gero, kultur etxeak zerbitzu horiek ematen dituzten enpresekiko harremana erraztuko du.

Zerbitzua emateagatik sortutako aparteko zerbitzuak ere, eskatzaileek hartuko dituzte beren gain, eta berme gisa jarritako fidantzatik kenduko dira.

Talde edo bakarkako artistek, gela edo espazio jakinak tailer, laborategi, eta abar moduan erabiliz gero, ordainketa kontraprestazio artistiko bidez egiteko erabakia hartu ahal izango da; edonola ere, zentroak baloratuko du hori, eta konpromiso-protokoloa sinatu beharko dute bi aldeek.

Erakundeek, taldeek eta elkarteek ezin izango dute produktuen edo objektuen salerosketarik egin, ongintzazko edo elkartasuneko xedearekin ez bada; horretarako, aurretiaz zentroaren oniritzia izan beharko dute beti. Hori guztia, eskaera-orrian azaldu beharko da, jarduera deskribatzen den atalean.

Lagapenaren testuinguruan antolatutako jardueretara joateko, sarrera edo beste edozein kuota kobratzen duten irabazi asmorik gabeko erakundeei, ez zaie aplikatuko espazioak lagatzeko zerbitzuaren kuota murriztua, baizik eta partikularrei, enpresei edo elkarte profesionaleri aplikatzen zaien kuota.

Honako hauek daude espazioak lagatzeko zerbitzuaren tarifen ordainketaren tasetatik salbuetsita:

Estatua, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, Basauriko Udala.

Udal-titulartasuneko zerbitzuak.

Alderdi politikoek, hauteskunde-garaian, eta langileen sindikatuak, beren batzarrak egiteko antolatutako ekitaldiak.

Bereziki sozialak eta kulturalak diren erakundeak, eta, irabazi asmorik gabe, udalerriko biztanleentzat zalantzarik gabe interesekoak diren jarduerak egiten dituztenak.

Tasak ordaintzeak ez ditu barne hartzen muntatzeko, edo prestatzeko aparteko lanak. Espazio baten erreserbaren onuradunek, aurrez itundutako akordiorik izan ezean, beren bitarteko teknikoak (langileak eta materiala) izan beharko dituzte jarduerak garatzeko. Elementu jakinak erabiltzeko, maneiatzeko edo muntatzeko, Udal Kultur Etxeak hori egin behar duten enpresak edo pertsonak zehaztu ahal izango ditu, kontuan hartuz lan horien, eta erabiliko diren materialak garraiatzearen kostua, erakunde eskatzaileari egotziko zaiola beti.

## 6. Itzultzeak.

Udal Kultur Etxeak alokairuaren zenbatekoa itzuliko du, zentroak berak jarduera bertan behera utzi, edo instalazioen egoerak erabilera egokia ahalbidetzen ez duenean. Hala gertatzen denean, erreserba beste egun batera, eta ezaugarri berberak dituen espazio batera aldatu ahal izango da.

Itzulketa, dagokion espazioa dagoen zentroan izapidetu beharko da, gehienez ere zazpi eguneko epean. Itzulketa izapidetzeko, erreserba ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da.

Eskatzaileak erreserba bertan behera uzten badu jarduera egin baino hamabost egun lehenago, ordaindu beharreko zenbateko osoa bueltan jaso, nahiz erreserba beste egun batean egiteko eskubidea izango du. Erreserba bertan behera utziz gero jarduera egiten hasi aurreko hiru egunetan, ordea, ordaindutako zenbatekoaren % 50 itzuliko da.

## 7.- Espazioak erabiltzeko ordutegiak.

Basauriko gizarte-etxeetako eta kultura-etxeetako espazioak lagatzeko zerbitzuen ordutegia, ekipamendu bakoitzaren ordutegi berbera da; ahal den neurrian, eskatzaileak ordutegi hori bete beharko du.

Eskatzaileak, erreserba-fitxan, jardueraren hasiera-ordu eta amaiera-ordu zehatza adierazi beharko ditu, eta ordutegi horren barruan egongo da jardueraren iraupena; behar izanez gero, ekitaldia muntatzeko eta desmuntatzeko ordutegia ere jasoko ditu.

Jarduera zentroaren ordutegitik kanpo egiten denean, edo ordutegia luzatu behar denean, eskatzaileek aparteko langile-gastuak euren gain hartu beharko dituzte; ordutegia luzatuz gero, berriz, orduen zatikiak ordu osotzat hartuz zenbatuko da.

#### 8.- Erreserba bertan behera uztea.

Udal Kultur Etxeak, beharrezkoa izanez gero, erreserbak bertan behera utzi ahal izango ditu, instalazioa oker erabiltzen denean, nahiz egiten diren jarduerak erreserba eragin zuten arrazoien kalterako direnean.

Era berean, Udal Kultur Etxeak, erabiltzaileentzat eta, oro har, jendearentzat, instalazioak guztiz edo partzialki ixteko aukera izan dezake, ustekabeko arrazoiak direla-eta, instalazioen erabileran edozein motatako arriskua egon daitekeela erabakiz gero.

Udal Kultur Etxeak, bestalde, gizarte-etxeetan eta kultur etxeetan egindako erreserba bat atzeratu, edo bertan behera utz dezake, betiere arrazoitutako eta jendearen interesekoa den kasuan. Posible izanez gero, jarduera egiteko beste espazio bat emango da, eta ahalegina egingo da jarduera egin baino 48 ordu lehenago atzeratzeari buruz ohartarazteko.

#### 9.- Erakundeentzako lokalak.

Kultur Etxeak xedatu ahalko du zentro jakinetan erakundeek bakarrik, edo era partekatuan erabiltzeko espazioak egotea (hala nola, bulegoak edo biltegiak). Espazio horiek denbora mugatu baterako esleituko dira, hitzarmen bidez eta alde zuzenetik deialdi publikoa eginda.

#### 10.- Hedapena eta irudi-eskubideak.

Zentroak, hedatzeko kanalak eta zentroko informazio-gunea eskura jarriko dizkie gelak edo espazioak lagatzeko zerbitzuaren erabiltzaileei.

Erakunde eskatzaileak, ekitaldiaren berri emateko materiala argitaratuz gero, erreserba-eskaerari material hori erantsiko dio, eta material hori publizitatea banatzeari buruzko udal-araudia betetzearen erantzulea izango da.

Eskatzaileak jardueratik argitaratzen duena hedatzean, ezin izango da agertu zentroaren logotipoa edo marka, ezta erakundearen irudia ere, zuzendaritzak aurrez baimenik ematen ez badu. Aurretik hala erabakiz gero, Kultur Etxearen logotipoa azaldu ahal izango da, jardueraren erakunde laguntzaile gisa.

Jardueraren berri ematean, ez da adieraziko zentroaren telefono-zenbakia. Ekitaldiari buruzko informazioa eskuratzeko, jarduera antolatzen duen erakundeak hartu beharko du bere gain, bere egoitzan eta berezko baliabideekin.

#### 11.- Lokalak erreserbatzeko eta alokatzeko araudia.



Lokal eta instalazio kulturalak erreserbatzeko arau bereziak eta dagozkien tarifak egongo dira. Erreserba eraginkorra izan dadin, dagokion alokairu-prezioa eta/edo udal-tasak arautzen dituen ordenantzan ezarritako fidantza ordaindu beharko da, horiek ordaintzetik salbuetsita dauden kasuetan izan ezik.

BASOZELAI GIZARTE ETXEA						
ARETOAREN IZENA	EKIPAMENDUA	EDUKIERA	ERRESERBAREN PREZIOA			FIDANTZA
			ORDUA	EGUN OSOA (8 ordu)	EGUN ERDIA (4 ordu)	
EKITALDI-ARETOA	Proiektatzeko kanoia; DVDa; idazteko paladun besaulkiak	64	15,60 €	104 €	52 €	78 €
BALIO ANITZEKO ARETOAK (URBI, AZBARREN, ARIZ, KAREAGA)	Mahaiak eta aulkiak	35	12,50 €	88 €	42 €	62 €
ARTUNDUAGA GELA	Ez dauka ez mahairik ez aulkirik	200	20,80 €	166 €	83 €	156 €
BALIO ANITZEKO ARETO BIKOITZA (URBI+AZBARREN)	Mahaiak eta aulkiak	70	15,60 €	104 €	52 €	78 €

KAREAGA GIZARTE ETXEA						
ARETOAREN IZENA	EKIPAMENDUA	EDUKIERA	ERRESERBAREN PREZIOA			FIDANTZA
			ORDUA	EGUN OSOA (8 ordu)	EGUN ERDIA (4 ordu)	
EKITALDI-ARETOA areto bikoitza (MALMASIN-PAGASARRI)	Proiektatzeko kanoia; mahaiak eta aulkiak	70	15,60 €	125 €	52 €	78 €
MALMASIN GELA	Proiektatzeko kanoia; mahaiak eta aulkiak	35	12,50 €	88 €	42 €	62 €
PAGASARRI GELA	Mahaiak eta aulkiak	35	12,50 €	88 €	42 €	62 €

POZOKOETXE KULTUR ETXEA						
ARETOAREN IZENA	EKIPAMENDUA	EDUKIERA	ERRESERBAREN PREZIOA			FIDANTZA
			ORDUA	EGUN OSOA (8 ordu)	EGUN ERDIA (4 ordu)	
BASKONIA	Proiektatzeko kanoia; DVDa; aulkiak	60	15,60 €	125 €	52 €	78 €
URDAIBAI	Telebista; DVDa; aulkiak	20	10,40 €	73 €	36 €	26 €
NERVION	Telebista+DVDa+mahaiak eta aulkiak	12	10,40 €	73 €	36 €	26 €

SAN MIGEL KULTUR ETXEA						
ARETOAREN IZENA	EKIPAMENDUA	EDUKIERA	ERRESERBAREN PREZIOA			FIDANTZA
			ORDUA	EGUN OSOA (8 ordu)	EGUN ERDIA (4 ordu)	
LAPATZA	Telebista + DVDa + aulkiak	15	10,40 €	73 €	36 €	26 €

VILLAVERDE	Arbela + mahai bat eta aulkiak	20	10,40 €	73 €	36 €	26 €
ARETO NAGUSIA (Lapatza + Villaverde)	Telebista + DVDa, mahai bat eta aulkiak	55	12,50 €	88 €	42 €	62 €

SAN MIGEL, TABERNA NAGUSIA						
GELAREN IZENA	EKIPAMENDUA	EDUKIERA	ERRESERBAREN PREZIOA			FIDANTZA
			ORDUA	EGUN OSOA (8 ordu)	EGUN ERDIA (4 ordu)	
ARETO NAGUSIA	Proiektatzeko kanoia; DVDa; soinu-ekipoa aulkiak	150	31,20 €	250 €	125 €	208 €

#### OHARRAK:

O1.- Jarduera egiteko giza baliabideei edo baliabide teknikoei dagokienez, behar bereziak daudenean, edo jarduera ohiko ordutegitik kanpo egiten denean, Kultur Etxeak zerbitzu horiek ematen dituzten enpresekiko harremana erraztuko du. Gastuak, erakunde edo enpresa antolatzailearen kontura izango dira.

O2.- Partikularrek, enpresek eta elkarte profesionalak, dagozkien tarifak ordaindu beharko dituzte, bai eta fidantza ere, espazioa ondo eta egokiro erabiliko delako berme gisa. Sarrera edo beste edozein kuota kobratzen duten irabazi asmorik gabeko erakundeek ere, fidantza ordaindu beharko dute.

O3.- Eskatzen den denbora gaindituz gero, orduen zatikiak ordu osotzat joko dira.

O4.- Udalari eta irabazi-asmorik gabeko instituzio, elkarte eta erakunde soziokulturaleri doan lagako zaizkie lokalak.

## IV.- BASAURI KIROLAK

### LEHENENGO TARIFA: INSTALAZIO-BONUAK.

#### AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

##### BANAKAKO BONUA.

- Behar bezala betetako eskabidea.
- Bonu-txartela egiteko argazki eguneratua.
- Nortasun Agiriaren fotokopia.
- Kuotaren ordainagiria, edo banku-helbideratzea egiteko datuak.

##### FAMILIA-BONUA.

- Behar bezala betetako eskabidea.
- Familiako kideen bonu-txartela egiteko argazki eguneratua.
- Familiaburuaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- Kuotaren ordainagiria, edo banku-helbideratzea egiteko datuak.

## **KASU BEREZIETAKO BONUAK.**

Aurretik eskatu diren agiriekin batera, honako hauek eskatuko dira, banakako zein familiako txartela den:

- Egiaztagiriak, hala denean, bonua eskatzen duten pertsonen diru-sarreraren maila justifikatzen dutenak eta/edo gizarte-laguntzen jasotzaileak direla egiaztatzen dutenak; diru-sarrera horiek etxe berean elkarrekin bizi diren familia-unitateko kideen diru-sarreraren batura izango dira.
- Medikuaren aginduz kirol-instalazioak erabili behar badira, espezialista errehabilitatzaile baten mediku-ziurtagiri bat erantsiko da. Bertan, adieraziko da kirol-instalazioak erabiltzea indarberritzen edo errehabilitatzen laguntzeko guztiz beharrezkoa dela. Dena den, Basauri Kirolakek baloratuko du premia hori.
- Gazte Txartela edo banakako txarteletarako hitzarmenak sinatzen dituzten beste txartel batzuk aurkeztea.
- Familia ugarien onuretarako, familia-liburua edo egoera hori egiaztatzen duen beste agiri ofizial bat aurkeztuko da. Horrez gain, 19 urtetik gorako eta 26 urtetik beherako seme-alabek frogatu beharko dute ekonomikoki familia-unitatearen mende daudela; horretarako, langabezian daudelako egiaztagiria aurkeztu beharko dute. Halaber, etxe berean bizi direla frogatu beharko dute.
- 19 urtetik gorako seme-alabak familia-bonuan sartzeko, beharrezkoa izango da familiaren egoitzan bizitzea, eta ekonomikoki familiaren mende egotea. Horretarako, ekonomikoki familia unitatearen mende daudela egiaztatzen duen dokumentu ofiziala aurkeztuko da, langabezian daudelako eta gurasoen PFEZn sartuta daudelako egiaztagiriaren bidez.
- Harrerako umeak dituzten familien kasuan, adingabeak hartzeko gizarte-programetan parte hartzen dutela egiaztatu beharko dute.
- Enpresentzat, haien helbidea Basauri udalerrian badago, udalerrian kirolari laguntzen badiote eta Basauri Kirolakekin hitzarmen bereziak sinatu badituzte; Basaurin erroldatutako langileek dituzten ordainketa-tasak izan nahi dituzten erroldatu gabeko langileek aipatutako enpresarako lan egiten dutela egiaztatu beharko dute.
- Generoko kirol-kanpainetan parte hartzen duten emakumeei dagokienez, programa horietan parte hartzen dutela egiaztatu beharko dute.

## **BONUAREN PRESTAZIOAK.**

- Bonuduna izatea egiaztatzen duen agiria, ondorio horretarako emandako txartel izenduna da, pertsonala eta beste inori lagatu ezin dakiokena. Titularra ez den beste norbaitek txartel hori erabiltzen badu, txartela hilabetez kenduko da, eta ez da egongo eskubiderik Basauri Kirolakengandik diru-kopururik itzultzeko.

Oro har, Basauri Kirolakeko bonuak honako zerbitzu hauek biltzen ditu:

- Kirol-instalazioetara doan sartzea.
- Instalazioak erreserbatzeko lehentasuna; erreserba hori zazpi egun eta ordu erdi lehenago egin daiteke.
- Basauri Kirolakek antolatutako ikastaro eta jardueretan izena emateko lehentasuna.
- Murrizketak Basauri Kirolakek antolatutako ikastaro eta jardueretako kuotetan.

- Frontoi, padel, tenis eta pabiloien alokairuko prezioan % 50eko murrizketa, lanegunetan, 07:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera; eta 16:00etatik 20:00etara larunbat, igande eta jaiegunetan.
- Atletismo-pista doan erabiltzea.
- Artunduagako kiroldegiko oinarritzko gimnasioa doan erabiltzea.
- 18 urtetik beherakoek instalazioen erabileran % 50eko murrizketa izango dute erreserbatu beharreko instalazioaren ordua hasi baino bost minutu lehenago erreserbatuz gero.

## **BONUEN BALIOZKOTASUNA**

### **URTEKO BONUAK**

Edozein egunetan bideratzen dela ere, urteko bonua uneko urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra izango da balioduna, edo izapidetze-datatik aurrera, urtarrilaren 1a eta gero izapidetu bada.

### **SEI HILEKO BONUAK**

Edozein egunetan izapidetzen dela ere, sei hileko bonua udako kanpaina hasten den egunetik uneko urteko abenduaren 31ra arte izango da balioduna, edo izapidetze-datatik aurrera, udako kanpaina abiarazi ondoren izapidetu bada.

### **HIRU HILEKO BONUAK**

Edozein egunetan izapidetzen dela ere, hiru hileko bonua urriaren 1eko hasten den egunetik uneko urteko abenduaren 31ra arte izango da balioduna, edo izapidetze-datatik aurrera.

### **1.- FAMILIA-BONUAK:**

Horrelakotzat hartzen da familiaburuaren izenean egin dena, eta haren ezkontidea edo bikotekidea eta 19 urtetik beherako seme-alabak onuradun dituen. Gorputzeko edo buruko desgaitasun larriak dituztela egiaztatzen duten seme-alabak ere barne hartuko dira, haien jaioteguna edozein dela ere.

19 urtetik gorako seme-alabak dituzten familiek ere erabil dezakete mota horretako bonua, baldin eta seme-alabak familiaren egoitzan bizi badira eta ekonomikoki gurasoen mende badaude.

Urtekoak	157,50 €
Sei hilekoak	117,50 €
Hiru Hilekoak	86,63€

### **2.- BANAKAKO BONUAK:**

Horrelakotzat hartzen dira hori eskatzen duten pertsona guztienak, eta 18 urtetik gorako pertsona guztienak.

Urtekoak	99,00 €
Sei hilekoak	73,00 €
Hiru Hilekoak	54,45€

### **3.- KASU BEREZIETAKO BONUAK**

3.1.- LANBIDE ARTEKO GUTXIENENKO SOLDATATIK BEHERAKO DIRU-SARRERAK DITUZTENEN, EDO GIZARTE-LAGUNTZEN (GGD EDO GLL) JASOTZAILEAK DIRENEN BANAKAKO ETA FAMILIAKO BONUETARAKO:

Abonatze-kuotaren % 60ko hoberia. Horrez gain, doakoa izango da 3 hilabeteko aldi luzagarri batez, espezialista errehabilitzaile baten aginduz guztiz beharrezkoa bada kirol-instalazioak erabiltzea indarberritzen edo errehabilitatzen laguntzeko. Dena den, KUEk baloratuko du premia hori.

3.2.- GAZTE TXARTELA, ETA HITZARMENAK SINATUTA DITUZTEN BESTE TXARTEL BATZUEN JABE DIREN BANAKAKO ABONATUENTZAT, ETA BASAURIKO UDALAK ETA/EDO BASAURI KIROLAK-EK SUSTATUTAKO GENEROKO KIROL-KANPAINETAN PARTE HARTZEN DUTEN EMAKUMEEN ALTA BERRIETARAKO.

Abonatze-kuotaren % 20ko hoberia.

3.3.- FAMILIA UGARIENTZAT, EDO 3.1 EPIGRAFEAN ADIERAZITAKO EGOERAN DAUDEN FAMILIENTZAT:

Barne hartuko dira 26 urtetik beherako seme-alabak.

3.4.- ADINGABEEI ABEGI EGITEKO GIZARTE-PROGRAMETAN PARTE HARTZEN DUTEN FAMILIENTZAT:

Abegiko adingabeentzat eta haiekin doan familiako kide batentzat doakoa izango da, kide hori abonatua ez bada eta abegi-aldiak irauten duen bitartean.

3.5.- BASAURI KIROLAK-EKIN HITZARMENAK SINATZEN DITUZTEN ENPRESETAKO LANGILEENTZAT:

Udalerrian erroldatuta daudenek dituzten abonatzetasa berberak izango dituzte.

#### 4.- ERROLDATU GABE DAUDENEN BONUAK

Basauri udalerrian erroldatuta ez daudenek % 30eko errekgua ordainduko dute abonatzet-kuotan.

#### 5.- TXARTELAREN KOPIA

Txartelaren kopia	2,00 €
-------------------	--------

#### BIGARREN TARIFA: SARRERAK

1.- **URBI KIROLDEGIRAKO SARRERA:** behin bakarrik sartzeko eta erabiltzeko balio du.

Bonudunak:	<b>Doan</b>
------------	-------------

Bonurik ez daukatenak:	
16 urtetik aurrerakoak	2,60 €
16 urtetik beherakoak	1,35 €
3 urtera artekoak	Doan

**2.- ARTUNDUAGAKO KIROLDEGIRAKO SARRERA:** behin bakarrik sartzeko eta erabiltzeko balio du.

Bonudunak:	Doan
Bonurik ez daukatenak:	
16 urtetik aurrerakoak	4,60 €
16 urtetik beherakoak	2,80 €
16 urtetik gorakoak, jarduera-saioarekin	2,60 €
16 urtetik beherakoak, jarduera-saioarekin	1,35 €
3 urtera artekoak	Doan

**3.- 15 PERTSONATIK GORAKO TALDEENTZAKO, ETA ERABILERA BAKARREKO IGERILEKUETARAKO SARRERA.**

Bonudunak:	Doan
Bonurik ez daukatenak:	
16 urtetik aurrerakoak	3,90 €
16 urtetik beherakoak	2,35 €

**4.- IGERILEKUETARAKO 10 SARRERAKO BONUA.**

Eskuratzen den urte naturalean, 10 aldiz sartzeko balio du.

Bonudunak:	Doan
Bonurik ez daukatenak:	
16 urtetik aurrera	39,10 €
16 urtetik beherakoak	23,50 €

**5.- KIROL-IKUSKIZUNETARAKO SARRERAK.**

A maila	21,00 €
B maila	10,50 €
C maila	5,25 €

**6.- IGERILEKUETARAKO UDAKO SASIO BONUA**

Bonu hau kanpoko igerilekuetarako udako sasioarentzat bakarrik balio du eta kanpoko igerilekuako irekia datak batera gertatzen da.

Banakako Bonuak	49,50 €
Familia Bonuak	78,75 €

\*.- Basauri udalerrian erroldatuta ez daudenek % 30eko errekgua ordainduko dute abonatzeko-kuotan.

**BANAKAKO BONUAK:** Horrelakotzat hartzen dira hori eskatzen duten pertsona guztienak, eta 19 urtetik gorako pertsona guztienak.

**FAMILIA BONUAK:** Horrelakotzat hartzen da familiaburuaren izenean egin dena, eta haren ezkontidea edo bikotekidea eta 19 urtetik beherako seme-alabak onuradun dituenak. Gorputzeko

edo buruko desgaitasun larriak dituztela egiaztatzen duten seme-alabak ere barne hartuko dira, haien jaioteguna edozein dela ere.

19 urtetik gorako seme-alabak dituzten familiek ere erabil dezakete mota horretako bonua, baldin eta seme-alabak familiaren egoitzan bizi badira eta ekonomikoki gurasoen mende badaude.

#### AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

##### BANAKAKO BONUA.

- \* Behar bezala betetako eskabidea.
- \* Bonu-txartela egiteko argazki eguneratua.
- \* Nortasun Agiriaren fotokopia.
- \* Kuotaren ordainagiria, edo banku-helbideratzea egiteko datuak.

##### FAMILIA-BONUA.

- \* Behar bezala betetako eskabidea.
- \* Familiako kideen bonu-txartela egiteko argazki eguneratua.
- \* Familiaburuaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- \* Kuotaren ordainagiria, edo banku-helbideratzea egiteko datuak.

#### **HIRUGARREN TARIFA: ALOKAIRU ARRUNTAK.**

Erreserbak ordubeterako izango dira beti, bestelakorik zehaztu ezean.

Instalazioak erabiltzeko erreserbak, egiten direnean eta eskubideaz gozatu aurretik ordainduko dira.

Basauri Kirolakeko kirol-instalazioak entrenamendu eta lehiaketetarako modu programatuan erabiltzen dituzten klubek, eskola-ekipoek eta kirol-elkartek, % 10eko deskontua izan ahalko dute tarifa honetan ezarritako prezioetan.

Basauriko klubek eta kirol-elkartek, eskubidea izango dute urtean behin ekitaldi-aretoa doan erabiltzeko, haien ohiko batzar orokorra egiteko.

#### **1.- FRONTOIAK.**

1. frontoia	6,10 €
1. frontoiko argi-gehigarria	3,30 €
2. eta 3. frontoiak.	4,20 €
2. eta 3. frontoietako argi-gehigarria	2,25 €

#### **2.- PISTA ESTALIA.**

Ordua	19,40 €
Argi gehigarria	3,50 €

#### **3- PABILOIA.**

Ordua	24,70 €
Argi gehigarria	4,30 €

#### **4.- PABILOIKO MODULUA.**

Ordua	10,50 €
Argi gehigarria	1,85 €

#### 5.- GIMNASIOA.

Ordua, argiztapena barne	11,25 €
--------------------------	---------

#### 6.- FITNESS ETA INDOOR ZIKLOKO GELA.

Ordua, argiztapena barne	24,60 €
--------------------------	---------

#### 7.- FUTBOL-ZELAIA.

Ordua, sarrera barne:	
Futbol-zelaia	58,90 €
7ko futboleko zelaia	35,90 €
Argi gehigarria	6,90 €

#### 8.- TENISA (ORDUA).

Tenis-pista estali gabea	4,20 €
Tenis-pista estalia	6,10 €
Argi gehigarria	2,45 €

#### 9.- MAHAI-TENISA.

Ordu bat	1,75 €
----------	--------

#### 10.- ATLETISMO-PISTA.

Bonudunak	Doan
Bonurik ez daukatenak, hiruhilekoan	33,10 €

#### 11.- ERROLDATU GABEKO ATLETA FEDERATUAK

Urteko banakako txartela	39,60 €
--------------------------	---------

#### 12.- SAUNA.

Bonudunak:	
Saioa	3,25 €
10 saioko bonua	28,90 €

Bonurik ez daukatenak:	
Saioa	4,00 €
10 saioko bonua	36,25 €

#### 13- BALIO ANITZEKO GELAK ERABILTZEAGATIK.

Ordua (argia barne, baina ekipamendurik gabe)	11,55 €
Ordua (argia eta ikus-entzunezkoen ekipamendua barne)	23,65 €
Egun erdia (argia eta ikus-entzunezkoen ekipamendua barne)	69,30 €



#### 14.- PADELA. (ORDUA)

Padel estali gabea	4,20 €
Argi gehigarria	1,75 €
Padel estalia argirekin	8,00€

#### 15.- ROKODROMORAKO ETA BOULDER ARETORAKO SARRERA

Bonudunak:	
Eguna (behin bakarrik sartzeko eta erabiltzeko balio du)	1,10 €
Hilabetea	9,65 €
Urtea	32,55 €
Basauriko Mendi Klubetan federatuta dauden abonatuak	Doan

#### 16.- ERABILERA PARTEKATUKO INSTALAZIOEN ERRESERBA.

Igeriketa-kalea	28,90 €
Igerileku osoa	95,55 €
Zuzena eta atletismo-pista	68,80 €
Aldagela	13,65 €
Rokodromoa	24,70 €

Basauri Kirolakekin hitzartutako ordutegietan.

#### LAUGARREN TARIFA: KIROL-MATERIALEN ALOKAIRUAK ETA BESTELAKOAK

Mahai-teniseko pala-jokoa eta pilota	1,05 €
Frontoiko kaskoa	1,45 €
Baloiak	1,95 €
A ile-lehorgailua	0,05 €
B ile-lehorgailua	0,10 €
Bainu-txanoen salmenta	2,00 €
Armairuko giltza galtzea	7,90 €
Padeleko pala	1,85 €
Teniseko/padeleko piloten potoa	5,00 €
Teniseko erraketa	1,75 €
Arnesa	2,00 €
Pultsometroa	1,05 €
Teniseko erraketa apurtzea	14,50 €
Padeleko pala apurtzea	29,50 €
Egun erdiko megafonia	98,50 €

#### 1.- PUBLIZITATEA

Oro har, tarifa hau erabiliko da Basauri Kirolakeko instalazioetan publizitate estatikoa jartzeko:

Gehienez ere 6 m <sup>2</sup> , ekoitzi eta jarri gabe, astean	75,00 €
6 m <sup>2</sup> -tik aurrera, ekoitzi eta jarri gabe, hilean	250,00 €

Instalazioetan lehiatzen diren udalerriko klubek ikuskizunean publizitate estatikoa eta iraunkorra jarri nahi badute, behar den kanona ordaindu beharko dute.

Publizitatea ipintzeko erabil daitezkeen espazioak eta gainerako irizpideak, artekaritza-kontseiluak ezartzen dituen arauen eta horri buruzko lege-xedapenen menpe egongo dira.

Instalazioetan lehiatzen diren udalerriko klubek ikuskizunean publizitate estatikoa eta iraunkorra jarri nahi badute, behar den kanona ordaindu beharko dute.

Publizitatea ipintzeko erabil daitezkeen espazioak eta gainerako irizpideak artekaritza-kontseiluak ezartzen dituen arauen eta horri buruzko lege-xedapenen menpe egongo dira.

m <sup>2</sup> , urteko	51,00 €
-------------------------	---------

### BOSGARREN TARIFA: IKASTAROETAN PARTE HARTZEA.

#### 1.- JARDUERA FISIKOEN IKASTAROAK, 21 PERTSONATIK GORAKOAK

Bonudunak:	
Astean 2 ordu	19,80 €
Astean 3 ordu	27,35 €
Ordu bateko gimnasia-saioa	3,60 €
Ordu eta erdiko gimnasia-saioa	5,20 €

Bonurik ez daukatenak:	
Astean 2 ordu	33,60 €
Astean 3 ordu	44,85 €

#### 2.- JARDUERA FISIKOEN IKASTAROAK, GEHIENEZ 20 PERTSONAKOAK

Bonudunak:	
Astean 2 ordu	27,15 €
Astean 3 ordu	37,15 €

Bonurik ez daukatenak:	
Astean 2 ordu	38,85 €
Astean 3 ordu	49,45 €

#### 3.- JARDUERA FISIKOEN IKASTAROAK, GEHIENEZ 12 PERTSONAKOAK

Bonudunak:	
Astean 2 ordu	34,15 €
Astean 3 ordu	42,55 €

Bonurik ez daukatenak:	
Astean 2 ordu	43,70 €
Astean 3 ordu	52,90 €

#### 4.- JARDUERA FISIKOEN IKASTAROAK, GEHIENEZ 8 PERTSONAKOAK

Bonudunak:	
Astean 2 ordu	37,50 €
Astean 3 ordu	46,00 €

Bonurik ez daukatenak:	
Astean 2 ordu	48,40 €
Astean 3 ordu	58,65 €

**5.- FITNESS MAKINAK ETA/EDO INDOOR BIZIKLETAK ERABILTZEN DITUZTEN JARDUERA FISIKOEN IKASTAROAK.**

Bonudunak	31,00 €
Bonurik ez daukatenak	46,25 €
Muskulazio-saioa	4,95 €

**6.- PROGRAMA KONBINATUAK: AEROBIKA + FITNESS; BIHOTZERAKO AEROBIKA + FITNESS; MANTENTZE-GIMNASIA + FITNESS; HIDROBICA + FITNESS.**

Abonatuak	39,50 €
Abonatu gabeak	52,50 €

**7.- ESKALADA-IKASTAROAK.**

Ordubeteko saioa.	
Bonudunak	4,70 €
Bonurik ez daukatenak	6,00 €

**8.- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO GORPUTZ-HEZKUNTZA.**

a).- 481,05 €-tik beherako diru-sarrerak dituztenak	Doan
b).- 481,05 eta 641,40 € arteko diru-sarrerak dituztenak	
Banakakoa, hiruhilekoan...	11,75 €
Senar-emazteak, hiruhilekoan	17,95 €
c).- 641,40 €-tik gorako diru-sarrerak dituztenak	
Banakakoa, hiruhilekoan...	19,90 €
Senar-emazteak, hiruhilekoan	29,80 €

**9.- IGERIKETA-IKASTAROAK: Matrikula eta ikastaroa.**

Hiruhilekoko ikastaroa, gehienez 8 pertsonakoa:	
Bonudunak.	76,20 €
Bonurik ez daukatenak.	117,40 €

Hiruhilekoko ikastaroa, gehienez 12 pertsonakoa:	
Bonudunak.	61,15 €
Bonurik ez daukatenak.	94,90 €

Hiruhilekoko ikastaroa, 12 pertsonatik gorakoa:	
Bonudunak.	46,05 €
Bonurik ez daukatenak.	71,10 €

Hileko ikastaroa, astean 3 ordukoa:	
Bonudunak.	27,60 €

Bonurik ez daukatenak.	45,25 €
Hirugarren adinekoentzako igeriketa-ikastaroa, hiru hilekoa:	
Bonudunak.	28,00 €
Bonurik ez daukatenak.	40,50 €
Bizkarrezurrerako igeriketa-ikastaroa, hiru hilekoa:	
Bonudunak.	76,00 €
Bonurik ez daukatenak.	117,40 €
Aqua-Gim ikastaroa, hiru hilekoa:	
Bonudunak.	55,10 €
Bonurik ez daukatenak.	93,00 €
Igeriketa-ikastaro berezia: astean saio bat	
Bonudunak.	56,00 €
Bonurik ez daukatenak.	86,30 €
Umetxoentzako igeriketa-ikastaroa: astean saio bat	
Bonudunak.	56,00 €
Bonurik ez daukatenak.	86,30 €
Eskola-umeentzako igeriketa-kanpaina	Doan
Eskola-umeen taldeentzako igeriketa, begiralerik gabe (ikasle bakoitzeko)	1,45 €
Eskola-umeen taldeentzako igeriketa, begiralearekin (ikasle bakoitzeko)	1,75 €
Igerilekuko jolasen eguna	2,55 €

#### **10.- TENIS- ETA PADEL-ESKOLA PARTIKULARRAK**

Ordua irakaslearekin, erreserba barne	27,00 €
---------------------------------------	---------

#### **11.- ENTRENATZAILE PERTSONALA**

Ordua irakaslearekin	27,00 €
----------------------	---------

#### **12.- DESKONTUAK ETA HOBARIAK**

- % 8ko deskontua aplikatu ahalko zaio hiru hilabeteko aldia edo horren baliokidea aldeztatik kobratzetik ondorioztatzen den tarifari, zentimoaren hamarrekoa gorantz biribilduta.
- % 16ko deskontua aplikatu ahalko zaio hamabi hilabeteko aldia aldeztatik kobratzetik ondorioztatzen den tarifari, zentimoaren hamarrekoa gorantz biribilduta.
- Aurretik deskontuaz ordaintzeko aldiak Basauri Kirolakek ezarriko ditu.

#### **13.- SUSTAPEN ETA DENBORALDIKO KANPAINAK ETA LEHIAKETAK.**

**Tarifak aurrekontuaren arabera zehaztuko dira.**

Oharra: tarifa horretan sartutako prezio guztiak hilabeterako dira, bestelakorik zehaztu ezean.

#### 14.- UR JAIK (URTEBETETZEAK)

Saio oinarritzko 8 pertsonako talderentzat	
Bonudunak:	44,00 €
Bonurik ez daukatenak:	49,00€

#### SEIGARREN TARIFA: PROGRAMATUTAKO ERRESERBAK.

**A.- KIROL-JARDUERAK:** Instalazioaren erreserba-prezioaren % 170. Sarrerak barne hartzen ditu, garbiketarik gabe.

Garbiketa, langile eta ordu bakoitzeko	25,00 €
--	---------

Erreserbak ordubeterako izango dira beti, bestelakorik zehaztu ezean.

Argiak piztu behar badira, dagokio argi gehigarria ordainduko da.

#### B.- KIROLAREKIN ZERIKUSIRIK EZ DUTEN JARDUERAK.

350 ikusle baino gutxiagorentzako espazioa	787,50 €
350 ikusle baino gehiagorentzako espazioa	1.123,50 €

##### 1.- Zehaztapenak.

Prezioak egun erdirako edo egun osorako izango dira.

Alokairuen prezioek ez dituzte barne hartuko elementuen muntatze- eta desmuntatze-lanak, garbiketa lanak, argia eta bestelako gastuak.

Era berean, ez dituzte barne hartzen kontrol-langileen orduak, ekitaldia instalazioaren ordutegitik kanpo antolatzen bada.

#### KIROLAREKIN ZERIKUSIRIK EZ DUTEN JARDUERAK ANTOLATZEKO INSTALAZIOEN LAGAPENA ARAUTZEN DUEN ARAUDIA.

Eskaera gutxienez 30 egun lehenago egingo da.

Instalazioak laga edo alokatu ahalko dira, baldin eta ez badago kirol-jarduera programaturik.

Beste erakunde publiko edo pribatu batzuen eskaerak banan-banan aztertuko dira, kontuan izanik erakunde pribatuei beti kobratuko zaiela, eta erakunde publikotzat jotzen direnak (adibidez, eskolak) ordaintzetik salbuetsita egongo direla. Dena den, gerta liteke azken horiei lan-orduetatik kanpo sortzen diren langile-gastuak kobratzea.

Garatzen den edozein jardueratarako, antolatzaileak erantzukizun zibileko aseguruia eta instalaziorako kalte-aseguruia egin beharko ditu.

Aurretik aipatu diren puntuak ez dira kontuan hartuko Udalak berak antolatzen dituen jardueretarako (dantza-alardea, jaiak eta abar).

### C.- ERABILERA-HITZARMENAK.

Basauri Kirolakek eta klubek, eskola-ekipoek, ikastetxeek, kirol- eta/edo kultura-elkarteek eta erakunde pribatuek, hitzarmenak sinatu ahalko dituzte kirol-instalazioen erabilera arautzeko. Kasu horretan, tarifak Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera murriztu ahalko dira.

## V.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Etxez etxeko laguntza-zerbitzua (aurrerantzean EELZ) dutenek, zerbitzu hori ordaintzen lagunduko dute. Horretarako, beraien gaitasun ekonomikoa kalkulatu da, indarreko Diru-sarreraren Bermerako Errentan oinarritutako formula honen arabera.

EELZren kostua ordaintzeko tarifa, hurrengo formula honen arabera kalkulatu da:

$$\text{HILEKO EKARPENEA} = R * (1 + \text{NH} / 100)$$

Bertan:

R= elkarbizitza-unitatearen baliabideak barematzeko koefizientea, honako formula hau aplikatuz lortuko dena:

$$R = (\text{IUC} - \text{RGI} * 15) / 100$$

Eta bertan:

IUC = ELKARBIZITZA-UNITATEAREN URTEKO DIRU-SARRERAK

RGI = DIRU-SARREREN BERMERAKO HILEKO ERRENTA: elkarbizitza-unitateko kide kopuruaren arabera indarrean dagoena.

-----

NH = elkarbizitza-unitateari hilean esleitutako zerbitzu-orduen kopurua.

Beraz, hauxe izango da ekarpena orduko:

$$\text{PH} = \text{AM} / \text{NH}$$

Hileko ekarpena egunka hainbanatuko da, zerbitzuko alta eta bajei dagokienez. Gauza bera egingo da hileko tasa aldatzea dakarten zerbitzu-aldaketekin.

### 1.- GAITASUN EKONOMIKOA:

Elkarbizitza-unitatearen urteko diru-sarrerak kalkulatu dira, honako elementu hauen arabera: errenta, ondarearen balioa eta elkarbizitza-unitateko kideen kopurua.

Errenta osatuko dute zerbitzuaren onuradun diren elkarbizitza-unitateko kideen diru-sarrera garbi guztiak. Diru-sarrera horien iturriak izango dira:

Lanetik, pentsioetatik edota toki-aurreikuspeni (edozein erregimenetakoak) lotutako prestazioetatik eratorritako etekinak.

Kapital higigarri eta higiezinaren etekinak.

Enpresa-jardueretatik edota jarduera profesionaletatik eratorritako etekinak.

Ondare balioa osatuko dute elkarbizitza-unitateko kideen kapital higigarri eta higiezin guztiak. Kapital hori konputatzeko, ondasun higiezinaren katastroko balioa hartuko da oinarritzat.

Ohiko etxebizitza (etxebizitza bera, garajea eta trastelekua) konputu horretatik salbuetsita egongo da.

Elkarbizitza-unitatea honako hauek osatuko dute: zerbitzuaren titularrak; bere ezkontideak edo izatezko bikoteak; eta 18 urtera bitarteko seme-alabek. Era berean, elkarbizitza-unitateko kide izango dira, alde batetik, etxe berean bizi eta indarreko Diru-sarreraren Bermerako Errenta baino diru-sarrera txikiagoak dituzten 26 urtera bitarteko seme-alabak, baldin eta langabezian badaude edota ikasten ari badira; eta beste alde batetik, % 33tik gorako desgaitasunak dituzten seme-alabak.

## 2.- KENKARIAK:

Honako egoera pertsonalak hartuko dira kontuan:

% 65eko edo gehiagoko desgaitasun-egiaztagiria dutenen kasuan, eta II. graduko edo goragoko mendekotasuna aitortua dutenen kasuan: 102 € pertsonako eta hileko. Gehienez ere 240 €, pertsona konputagarri guztiengatik.

Ohiko etxebizitzaren alokairu-gastuak. Gehienez ere 2.404,05 euro urtean.

Ohiko etxebizitza erosteko maileguaren interesak eta amortizazioa. Gehienez ere 2.404,05 euro urtean.

## **VI.- ADINEKOEN AISIALDIRAKO TAILERRAK ETA IKASTAROAK**

Udaleko erretirodunen etxeetan, edo Udalak horretarako erabiltzen dituen lokaletan, egiten diren adinekoen aisialdirako tailer eta ikastaro bakoitzean matrikulatzeagatiko tasa.

Tasa, matrikulazioko eta ikastaroko: 18,00 €.